

KANALAK:

Kanala gure zerbitzuak bezeroei iristeko bidea da, hau da gure zerbitzuak bezeroei helarazteko.

Hiru kanal mota erabiliko ditugu gure balio proposamena, gure kasuan Errenteriako zinema egokituta egotea, gure merkatu segmentuetara iristeko, hau da gurpil aulkian dauden pertsonen:

- Komunikazio-kanalak: gure zerbitzuak erabiltzeko eta erosteko nahia duten bezeroekin kontaktuan jartzeko, interneteko web orrialde bat izango dugu bi hizkuntzatan (euskara eta erdara). Orrialde hau, gure komunikazio kanal nagusia izango da baina ez bakarra. Horrez gain, enpresako langile bat ordu kopuru batzuk edukiko ditu Gipuzkoako Zinema aretoetara hurbiltzeko eta gure zerbitzuen berri emateko. Erabiliko dugun beste komunikazio kanal bat telefonoa izango da.



Hiru komunikazio kanalen bitartez eskainiko duguna, gure zerbitzuen berri ematea izango da. Bertan, zerbitzuen inguruko informazioa zabala eskainiko da, hala nola, zeintzuk diren gure zerbitzuen helburuak, zenbateko kostua duen gure zerbitzua, nola jarri daitezken gurekin kontaktuan, gure zerbitzuaren eskaerak nola egin....

- Banaketa kanalak: Gure balio-proposamena zerbitzu bat denez eta ez produktu bat, banaketa-kanala zehatz bat ez dugu izango. Hala ere, gure zerbitzuaren barruan hainbat produktu eskaintzen ditugunez, hala nola, gurpil-aulkian dauden pertsonentzako butaka bereziak. Honetarako, garraio enpresa baten laguntza izango dugu, butaka hauek erosten diren tokitik zerbitzua eskainiko dugu zinemara garraiatzeko.



- Salmenta-kanalak: Gure zerbitzuaren salmenta egiteko, komunikazio kanalean aipatutako web orrialdean egingo da, nagusiki. Bertan, gure zerbitzuak erosteko aukera izango du bezeroak. Honez gain, lehen aipatutako beste bi salmenta kanal ere edukiko ditugu: telefonoz eta gure langilea, zinema areto desberdinetara joaten denean.

